


EGIZU ZEURE FOSILA

Zer behar den?

- ✓ Harrikoa egiteko bi belaki
- ✓ Plater sakon bat
- ✓ Eltze txiki bat
- ✓ Katilu bat ur
- ✓ Epsom gatza (magnesio sulfatoa)
- ✓ Janarientzako koloregaia

Nola egin?

- 1 Moztu bi belakiak hezur itxuran, eta gorde bat gerorako. Jarri beste belakia plater barruan.
- 2 Berotu ura ia irakin arte, eta nahasi bertan Epsom gatza (magnesio sulfatoa), ahal duzun beste. Gehitu janarientzako koloregaia, dibertigarriagoa izan dadin.
- 3 Isuri nahastura belakiaren gainean.
- 4 Utzi platera inork ukituko ez duen toki batean zenbait egunez. Estali gabe utzi, ura lurrun dadin.



“ Behin ondo lehortu ondoren, konparatu belaki biak. Hautsi fosila erditik. Zer gertatu zaio belakiko materialari? ”

